

AUTOEBALUAZIOA**II. MODULUA: FARMAKOEN ADMINISTRAZIOA AHO-BIDETIK**

1. Farmakoen xurgapena aho-bidezko administrazioaren ondoren:

- a) Gehien bat urdailean ematen da
- b) Gehien bat heste meharrean ematen da
- c) Farmako azidoentzat urdailean ematen da eta farmako basikoentzat heste meharrean
- d) Xurgapena traktu gastrointestinal osoan uniforme da

2. Heste meharra xurgapenerako toki ezin hobea izatearen arrazoi nagusiak:

- a) Bere azalera handia, farmakoen iragate denbora altua eta odol irrigazioa
- b) Bere pHa
- c) Proteina garraiatzaileen eduki altua
- d) Heste meharreko fluidoa, farmakoen disoluzioa errazten baitu

3. Urdaileko hustuketa:

- a) 0 mailako zinetika jarraitzen du
- b) 1.go mailako zinetika jarraitzen du
- c) Ez dauka farmakoen xurgapenean inolako eraginik
- d) Ez da elikagaiekin aldatzen

4. Urdaileko hustuketa:

- a) Xurgatutako farmakoaren guztizko kantitatean eragina du beti
- b) Azkar xurgatzen diren farmakoen xurgapen abiaduran eragina du
- c) Motelki xurgatzen diren farmakoen xurgapen abiaduran eragina du
- d) Elikagaien gogortasunak ez du xurgapena baldintzatzen

5. Heste meharrean egote-denbora:

- a) Elikagaiak ez dute parametro honetan inolako eraginik
- b) Farmakoen xurgapen abiadura eragina dauka
- c) Xurgatutako kantitatean eragina dauka xurgapen moteleko farmakoen kasuan
- d) Xurgatutako kantitatean eragina dauka xurgapen azkarreko farmakoen kasuan

6. Elikagaiak farmakoen xurgapenean eragina eduki dezakete:

- a) Xurgatutako kantitatea baldintzatuz baina ez abiadura
- b) Xurgapen abiadura baldintzatuz baina ez kantitatea
- c) Xurgatutako kantitatea eta abiadura baldintzatuz
- d) Elikagaien bakarrik izaera azidoa duten farmakoen xurgapena baldintzatzen dute

7. Lehen iragaite efektua:

- a) Farmakoen metabolismoa heste meharreko zeluletan eta gibelean
- b) Urdaileko pH-ren ondorioz farmakoaren degradazioa
- c) Farmakoaren degradazioa heste meharreko pH-ren ondorioz
- d) Farmakoaren degradazioa urdaileko eta heste meharreko entzimen eraginaren ondorioz

8. Farmako batek ziklo entero-hepatikoa jasaten du baldin eta:

- a) Ondo xurgatzen bada eta gorzkietatik kanporatzen bada
- b) Behazun-eliminazioa jasaten badu eta heste meharrean berriro xurgatzen bada
- c) Gibelean lehen iragaite efektua jasaten badu baina ez heste meharrekoa
- d) Heste meharreko lehen iragaite efektua jasaten badu baina ez gibelean

9. Lehen iragaite efektua:

- a) Beti ondorio negatiboak ditu
- b) Profarmako bat administratzen bada positiboa izan daiteke
- c) Fenobarbitalek inhibititu dezake
- d) Azido askorbikoak eragin dezake

10. Aho-bidezko administrazioaren ondoren, xurgatutako dosi frakzio honela kalkulatu daiteke:

- a) Aho-bidetik lortutako kurba azpiko azalera (AUC) bena-barnetik lortutako kurba azpiko azalerarekin konparatuz
- b) Aho-bidetik lortutako t_{max} bena-barnetik lortutako t_{max} balioarekin konparatuz
- c) Aho-bidetik lortutako C_{max} bena-barnetik lortutako C_{max} balioarekin konparatuz
- d) Aho-bidetik lortutako t_{max} eta C_{max} bena-barnetik lortutako t_{max} eta C_{max} balioekin